

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Tuterako epaitegi berriak 2012ko udan martxan izango dira beren kokapen berrian

Hala adierazi du Jimenez lehendakariordeak Erriberako hiriburuko epaitegietara eta Foruzaingoaren komisariara egin duen bisita instituzionalean

Martes, 08 de noviembre de 2011

Lehen

Lehendakariordeak eta Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuko kontseilariak gaur Tuteran esan du, Erriberako hiriburuko epaitegi berriak 2012ko bigarren seihilekoan martxan izango direla beren kokapen berrian, eraikin berria amaitu ondoren eta Albeako Bidean, Queiles ibaiko Ibai Parkearen alboan, dagoen epaitegietako egoitza berriko altzariak gaitu ondoren



Ezkerretik eskuinera: Tobajas, Sebastián eta Jiménez lehendakariordea eta Jurío.

Roberto Jiménezek gaur goizean bisita instituzionala egin du Tuterako epaitegietan eta Foruzaingoaren komisarian. Halaber, gaur arratsaldean bilera bat izango du hiriko alkatearekin eta udal-korporazioarekin.

Lehendakariak Tuterako epaitegietan hasi du bere bisita, eta harekin batera izan dira: Barne eta Justiziako zuzendari nagusi Inmaculada Jurío, Tuterako epaile dekanó Oscar Sebastián eta Tuterako instrukzioko 1. epaitegiko epaile Octavio Tobajas. Jiménezek adierazi duenez, "iragan astelehenean, hilak 7, Foru Erkidegoak onartutako 2012rako Nafarroako Aurrekontuek 2.824.000 euroko partida bat jasotzen dute azpiegitura judizial hori amaitzeko eta abian jartzeko, eta Erriberako herritarren zerbitzua modernizatu eta hobetuko ditu; horrez gain, eremu judizialean lan egiten duten pertsonen lana erraztuko du, ingurune egokiago batean".

Eraikin berriak 5,2 milioi euroko inbertsioa eskatuko du Nafarroa 2012 Planaren barnean, eta 5.300 m² baino gehiagoko azalera izango du lau solairutan banatuta. Fiskaltzarentzako instalazioak izango ditu, Erregistro Zibilaren bulegoa, guardiako epaitegirako bulegoa, abokatu eta prokuradoreen elkargoentzako gelak, artxiboa, bistetarako zenbait gela, garajea eta Foruzaingoaren jendaurreko arretagunea. Sarasate ibiltokian

dagoen egungo egoitzak 2.255 m² du eta akats funtzionalak ditu (egokitu gabeko espazioak, azalera txikia...), eta hura uztea komeni da.

2011ko lehen hiru hiruhilekoetan, Tuterako epaitegiek 12.800 prozedura judizial baino gehiago ebatzi dute eta 12.346 gai sartu ziren; haietatik 10.279 zigor-arlokoak eta 2.067 zibilekoak. 2011n Tuterako epaitegietan ebatzitako gai penalak 10.389 izan ziren eta 2.481 gai zibilak.